



Junta General del  
Valle de Roncal  
Erronkaribarko  
Batzorde Nagusia

**ERRONKARIBARKO BATZORDE  
NAGUSIAK 2023KO URRIAREN 26AN  
EGINDAKO EZOHICO OSOKO  
BILKURAREN AKTA**

2023ko urriaren 26ko 18:00etan, Erronkariko Batzar-etxean, Erronkaribarko Batzorde Nagusiak ezohiko Osoko Bilkura egin du, Asier Gil Artuch idazkaria izanik eta Erronkariko alkate Amparo Viñuales Gale Batzordeburu dela, bera Erronkariko ordezkari gisa agertuz. Gainerako herrien izenean ondoko ordezkariak bertaratu dira:

UZTARROZE: Jone Alastuey Garcia  
IZABA: Carlos Anaut Abadia  
URZAINKI: Eneko Eiguren Ruiz eta Felix Galetx Laiana  
GARDE: Ricardo Galan Treviño  
BURGI: Elena Calvo Petrotx  
BIDANKOZE: Tomas Pasquel Ayechu

Batzordeburuak bilkura hasi eta gai-zerrendari jarraiturik honako erabaki hauek hartu dira:

**1º.-BATZORDEBURUORDEAREN  
EBAZPENAK**

Fernando Anso Perezek, Juana Aznarez Urzainquik eta Carmen Petroch Ederrak aurkeztutako idazkien berri eman da. Horien bidez Etxeko Laguntza Zerbitzua eskatu dute. Txosten soziosanitarioak ikusirik, eta Batzorde Nagusiak 2016ko maiatzaren 16an onetsitako ELZri buruzko ordenantzaren 11. artikuluekin bat, Batzordeburuak Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzeko eskaerak onestea ebatzi zuen.

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA  
DE LA JUNTA GENERAL DEL VALLE DE  
RONCAL CELEBRADA EL DÍA 26 DE  
OCTUBRE DE 2023**

En la villa de Roncal y Casa del Valle, siendo las 18:00 horas del día 26 de octubre de dos mil veintitrés, con asistencia del Secretario D. Asier Gil Artuch y bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa de la Villa de Roncal Dña. Amparo Viñuales Galé, que concurre representando a esta villa, se reúne la Junta General del Valle de Roncal, en sesión extraordinaria, concurriendo por las demás villas la representación siguiente:

POR UZTARROZ: Jone Alastuey García  
POR ISABA: Carlos Anaut Abadía.  
POR URZAINQUI: Eneko Eiguren Ruiz, Felix Galetx Laiana  
POR GARDE: Ricardo Galán Treviño  
POR BURGUI: Elena Calvo Petrotx  
POR VIDÁNGOZ: Tomás Pasquel Ayechu

Abierta la sesión por la Sra. Vicepresidenta y siguiendo el orden del día, fueron adoptados los siguientes acuerdos:

**1º.-RESOLUCIONES DE  
VICEPRESIDENCIA:**

Se da cuenta de los escritos que presentan D. Fernando Ansó Perez, Dña Juana Aznarez Urzainqui y Dña Carmen Petroch Ederra en el que solicitan la prestación del Servicio de Atención a Domicilio. A la vista de los informes socio sanitarios y de acuerdo al artículo 11 de la ordenanza del SAD de la Junta General del Valle de Roncal aprobada el 16 de mayo de



Junta General del  
Valle de Roncal  
Erronkaribarko  
Batzorde Nagusia

Horretarako, eskatzaileek ELZren Ordenantzak ezarritako tasak ordaindu beharko dituzte.

Jakinarazi da Jesus Cruchaga Mainz Batzorde Nagusiko ordezkari izendatu zela CEDERNA-GARALUREko Zuzendaritza Batzordeak irailaren 20an egin zuen bilerarako.

Eutsi mikrokooperatiba elkarteak, Iزابako oinarrizko osasun-eskualdeak eta Batzorde Nagusiak egindako lankidetzak akordioaren berri eman da, ibarrean 60 urtetik gorakoentzako jarduera fisikoko eta osasuneko proiektua gauzatzeko.

### 2º.-2022ko AURREKONTU OROKOR BAKARRAREN LIKIDAZIOA ETA EKITALDI BEREKO EGOERA-ORRIAK ETA KONTU OROKORRA

2022ko ekitaldiko kontuak aurkeztu dira, onets daitezzen. Batzorde Nagusiaren Kontuen Batzorde Bereziak, 2023ko urriaren 26ko Osoko Bilkuraren aurretik egindako bileran, erabaki du 2022ko aurrekontu orokor bakarraren likidazio-kontuen eta ekitaldi bereko egoera-orrien eta kontu orokorraren aldeko txostena egitea.

Akta ikusita, Batzorde Nagusiak erabaki du 2022ko aurrekontu orokor bakarraren likidazio-kontuak eta ekitaldi bereko egoera-orriak eta kontu orokorra onestea, baldin eta espedientea hamabost egunez jendaurrean jarri ondoren alegaziorik aurkezten ez bada.

### 3º.- AURREKONTU-ALDAKETAK

2016 tras su publicación en el BON, resolvió concediendo como prestación social, el Servicio de Atención a Domicilio demandado, por el cual deberán abonar por ello las tasas establecidas en la vigente Ordenanza del SAD.

Se da cuenta del nombramiento de Jesus Cruchaga Mainz como representante de la Junta General del Valle de Roncal en la Junta Directiva de CEDERNA-GARALUR celebrada el pasado 20 de septiembre.

Se da cuenta del acuerdo de partenariatado celebrado entre Eutsi Sociedad Microcooperativa, Zona básica de Salud de Isaba y la Junta General del Valle de Roncal con objeto de llevar a cabo del proyecto de actividad física y salud en el Valle de Roncal para personas mayores de 60 años.

### 2º.-LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO GENERAL ÚNICO DEL AÑO 2022 Y LOS ESTADOS Y CUENTA GENERAL DEL MISMO EJERCICIO

Se presentan para su aprobación las cuentas del ejercicio económico de 2022. La Comisión Especial de Cuentas de la Junta General del Valle de Roncal, en reunión celebrada el día 26 de octubre de 2023 de forma previa a la celebración de esta acordó informar favorablemente de las cuentas de liquidación del presupuesto general único de 2022 y de los estados y cuenta general del mismo ejercicio. A la vista del acta levantada al efecto esta Junta General acuerda aprobar las cuentas de liquidación del presupuesto general único de 2022 y de los estados y cuenta general del mismo ejercicio siempre y cuando tras la exposición del expediente al público por



Junta General del  
Valle de Roncal  
Erronkaribarko  
Batzorde Nagusia

Jakinarazi da Foru Agindu hau argitaratu dela: 298E/2023 Foru Agindua, ekainaren 20koa, Gizarte Eskubideen kontseilariak emana. Horren bidez onetsi zen oinarrizko gizarte zerbitzuen titular diren toki-erakundeei dirulaguntzak emateko deialdia, banakako ebaluazioaren erregimenean, haiek digitalki modernizatzeko, haien sistema informatikoetako euskarri fisikoko elementuetan eta egiturazko elementu informatikoetan inbertsioak eginez; hori dena Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Gizarte Zerbitzuak Modernizatzeko Planaren C22.12 neurriaren esparruan, Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatuta. Batzorde Nagusiak uste du aukera ona dela Oinarrizko Gizarte Zerbitzua digitalizatzeko beharrezkoak diren ekipamendu informatikoetan inbertsioa egiteko, eta deialdi horren bidez laguntza eskatuko du.

Aurkeztutako aurrekontuak ikusita eta ekipamendu informatikoak erostea komeni dela ikusita, aho batez erabaki da aparteko kreditu hau onestea, diruzaintzako gerakinaren kargura:

el plazo de quince días no se hayan presentado las alegaciones que los interesados estimen oportunas.

### 3º-MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS

Publicada la ORDEN FORAL 298E/2023, de 20 de junio, de la consejera de Derechos Sociales, por la que se aprueba la convocatoria de subvenciones en régimen de evaluación individualizada a entidades locales titulares de Servicios Sociales de Base para la modernización digital de los mismos mediante inversiones en elementos de soporte físico de su sistemas informáticos y elemento informáticos estructurales, en el marco de la medida C22.12 Plan de Modernización de los Servicios Sociales del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR) financiado con el Mecanismo de Reactivación y Resiliencia (MRR) de la Unión Europea, se considera que es una buena oportunidad para realizar la inversión en diferentes equipamientos informáticos necesarios para la digitalización del Servicio Social de Base, solicitando la ayuda convocada mediante la citada Orden Foral.

A la vista de los presupuestos que se presenta y vista la conveniencia de adquirir los equipos informáticos se acuerda por unanimidad aprobar el siguiente crédito extraordinario con cargo a remanente de tesorería:



PARTIDA PRESUPUESTARIA AURREKONTUKO PARTIDA	DESCRIPCIÓN AZALPENA	EUROS
1.2311.6260001	Adquisición material informático SSB Ekipamendu informatikoa erostea (OGZ)	10.369,7

PARTIDA PRESUPUESTARIA AURREKONTUKO PARTIDA	DESCRIPCIÓN AZALPENA	EUROS
	Remanente líquido de tesorería. Diruzaintzako gerakina	10.369,7

4º.-KIROL ETA KULTUR  
JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK  
BEHIN-BEHINEAN EMATEA

Kirol eta kultur jardueretarako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzarekin bat, behin-behinean honako dirulaguntzak ematea erabaki da:

1. 3.000 eurotik gorako aurrekontua duten kultur jarduerak; 2.990,64 euro Almadiazainen elkarteari, Erretiratuen eta pentsiodunen elkarteari eta Ukerdi Film Festival-i.

2. 3.000 eurotik beherako aurrekontua duten kultur jarduerak; 1.563,35 euro Gaztelu emakumeen elkarteri eta Julian Gayarre guraso elkarteari.

Jarduera horietan 1.314,49 euroko soberakina izan da. Zenbateko hori justifikazioak egin ondoren banatuko da, Ordenantzarekin bat.

3. Trebakuntzako kirol jarduerak; 3.364,52 euro Toki Ederra kirol elkarteari eta Erronkariko Pirinioak elkarteari.

4. Lehiako kirol jarduerak; 2.243,02 euro Erronkariko Pirinioak elkarteari, ADI-IKERi eta Larra-Larrau taldeari.

5. Elkaratek eta kolektiboek

4º.-SUBVENCIÓN A LAS ACTIVIDADES  
CULTURALES Y DEPORTIVAS. REPARTO  
PROVISIONAL.

En relación con la concesión de ayudas a las actividades culturales y deportivas, en conformidad con la Ordenanza existente sobre el particular, de forma provisional, se acuerda:

1º.- Conceder una subvención de 2.990,64 euros a las actividades culturales con presupuesto superior a 3.000,00 euros presentadas por la Asociación de Almadieros, Asociación de Jubilados y Pensionistas del Valle de Roncal y a Ukerdi Film Festival.

2º.- Conceder una subvención de 1.563,35 euros a las actividades culturales con presupuesto inferior a 3.000,00 euros presentadas por la Asociación de mujeres Gaztelu, y APYMA Julián Gayarre. El excedente tras el reparto a las actividades con presupuesto inferior a 3.000 euros es de 1.427,29 euros que se repartirá conforme a la ordenanza reguladora de la presente convocatoria una vez las asociaciones justifiquen sus actividades.

3º.- Conceder una subvención de 3.364,52 euros a las actividades deportivas de formación presentadas por el Club Deportivo Toki Ederra y Club Pirineos del



Ordenantzan adierazitako dokumentazioa eta jardueren justifikazioa aurkezteko epea 2023ko abenduaren 15ean amaituko da. Dokumentazioa epez kanpo aurkezten bada, laguntza galdu eta ordainketa bertan behera geratuko da.

#### 5º.-"NAFARROA BIZIKLETAZ" KLUBARI ATXIKITZEA

CEDERNA GARALUR-ek proposatuta, Turismo Batzordeak "Nafarroa Bizikletaz" Produktu Klubari bazkide gisa atxikitzeko aukera aurkeztu du. Klub horren helburua da zikloturismoaren bertsio guztietan oinarritutako helmuga turistikoa sortzea da.

Batzorde Nagusiak erabaki du informazio gehiago eskatzea eta gaia Turismo Batzordean aztertzea, klub horretan sartzeko erabakia hartu aurretik.

#### GAI-ZERRENDATIK KANPO

Gai-zerrendarik kanpo, eta gaia presakotzat jo ondoren, Urzainkiko ordezkari Eneko Eiguren Ruizek azaldu du lanean jarraitzen duela ibarlean artzaintza-eskola bat sortzeko. Harremanetan dago San Juan de Planeko artzaintza-eskolarekin, eta, elkarrizketa horiei esker, Sarganta enpresak prestakuntza bat emateko aukera sortu da. Enpresa horrek honakoak egiten ditu: landa-garapen jasangarriko eta mugaz gaindiko proiektuak, prestakuntza-planak eta -ikastaroak, eta aisialdiko eta ingurumen-hezkuntzako jardueren diseinua, plangintza eta garapena.

Roncal.

4º.- Conceder una subvención de 2.243,02 euros a las actividades deportivas de competición presentadas por el Club Pirineos del Roncal, Adi-Ike y Club Larra-Larrau.

5º.- Fijar el día 15 de diciembre de 2023 como último día para que las distintas Asociaciones y Colectivos presenten la documentación indicada en la Ordenanza y la justificación de haber realizado la actividad, a los efectos de proceder al pago de las ayudas, facultando a la Comisión de Cultura y Deporte para el reparto que corresponda. La no presentación de la documentación en el plazo indicado, conllevará la pérdida de la ayuda y dejará sin efecto el pago de la subvención correspondiente.

#### 5º.- ADHESIÓN AL CLUB NAVARRA EN BICI

A propuesta de CEDERNA GARALUR se presenta por la Comisión de Turismo la posibilidad de que ésta se adhiera como socio al Club de Producto Navarra en Bici, que tiene por objeto crear destino turístico centrado en el cicloturismo en todas sus versiones.

Se acuerda solicitar más información y tratar el asunto en la Comisión de Turismo antes de tomar la decisión de adherirse a dicho club.

#### ASUNTOS FUERA DEL ORDEN DEL DÍA.

Fuera de convocatoria y previa declaración de urgencia se expone por parte del representante de Urzainqui D.Eneko Eiguren Ruiz que se sigue trabajando con la idea de crear una escuela



Prestakuntza hori ibarreko abeltzainei zuzenduta legoke, etorkizunean haiek artzaintza-eskola bateko tutore gisa jardun ahal izateko. Hamar bat abeltzainek interesa agertu dute. Nolanahi ere, San Juan de Planeko artzaintza-eskolako praktiketako ikasleek ere parte hartu ahal izanen lukete.

Programa bertaratutakoen eskura jarri da. Aurrekontua 4.537,50 eurokoa da eta, onetsiz gero, prestakuntza azarotik abendura bitartean eginen litzateke.

Batzorde Nagusiak erabaki du Sargantak aurkeztutako aurrekontua onestea eta prestakuntza egitea, etorkizunean ibarrean artzaintza-eskola bat sortzeko lehen urrats bat izan daitekeelako.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 19:30ean Batzordeburuak bilkura amaitu du, honako akta hau idatzi, irakurri eta ontzat emana, bertaratutakoek sinaturik eta neronek, idazkariak, egiaztaturik.”

de pastoreo en el Valle de Roncal. Es por ello que se ha seguido manteniendo contacto con la escuela de pastoreo de San Juan de Plan. Gracias a estas conversaciones surge la posibilidad de llevar a cabo una formación impartida por Sarganta, una empresa dedicada a la gestión de proyectos de desarrollo rural sostenible, proyectos transfronterizos, planes y cursos de formación y, diseño, planificación y desarrollo de actividades de ocio y educación ambiental, dirigida a ganaderos/as del Valle de Roncal, para que estos/as puedan en un futuro ejercer como tutores/as certificados de una futura escuela de pastoreo. En cualquier caso, en la actualidad se podrá recibir alumnado en prácticas de la citada escuela de pastoreo de San Juan de Plan.

Actualmente se cuenta con una decena de ganaderos/as interesados en la formación, cuyo programa ha sido puesto a disposición de los presentes, estando presupuestado el mismo en 4.537,50€. La formación, de aprobarse se llevaría a cabo entre los meses de noviembre y diciembre del presente año.

Se acuerda aprobar el presupuesto presentado por Sarganta y llevar a cabo la formación entendiéndola como un primer paso para poder, en un futuro, implantar una escuela de pastoreo en el Valle de Roncal.

No habiendo más asuntos que tratar siendo las 19:30 de la tarde del día señalado al inicio, por el Sr. Presidente se levanta la sesión, redactándose la presente Acta que, leída y hallada conforme, es firmado por todos los asistentes, conmigo el Secretario que certifico.



Junta General del  
Valle de Roncal  
Erronkaribarko  
Batzorde Nagusia